

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

267/2022 Foru Agindua, uztailaren 21ekoa, zeinak Arabako Lurralde Historikoan ehiza jardueraren araudi espezifikoa ezartzen duena 2022-2023 denboraldirako

Arabako Lurralde Historikoak badu ahalmena, erkidego osoko erakundeek arautu ez dituzten arlo guztietan, ehiza jarduerari buruzko arauak garatzeko, baldin eta erakunde horiek eman dituzten arauetara moldatzen bada. Ahalmen hori erabiliz, Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 Foru Araua onetsi zen. Foru arau horren 32. artikulua ezartzen du Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak onetsiko duela Arabako Lurralde Historikoan ehizan jarduteko xedapenak arautuko dituen urteko foru agindua, non honakoak zehaztuko baitira gutxienez: ehizaren eta merkaturatzearen aldetik interesa duten espezieak; araudiak; leku desberdinetan espezie desberdinen ehizarako aplikagarri diren aldiak, baimendutako egunak eta orduak, ehizan egiteko modalitateak eta harrapaketak adierazita.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 31. artikuluan zehazten du zein diren foru aldundiek urtero eman behar dituzten debekualdi aginduetan gutxienez jaso behar diren edukiak.

Kontuan hartu dira ehizaren araupetzean eragiten duten eta honako hauetatik eratortzen diren alderdiak: estatuko araudia —Ehizari buruzko 1/1970 Legearen Erregelamendua; eta, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legea —, Europako Batasuneko 2009/147/EE eta 92/43/EE zuzentarauak, eta Bernako 1979ko Hitzarmena.

Kontuan hartuta ehiza faunaren egungo egoera eta nekazaritzan eragiten diren kalteak, eragindako trafiko istripu ugariak arriskuan jartzen duten bide segurtasuna, eta pertsonentzako eta abeltzaintzako espezieentzat dauden osasun arriskuak, uste da interes publikoko nahikoa arrazoi daudela ehiza jarduera behar bezala sustatu eta arautzeko.

Foru agindu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako araupetze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da Araban ehizaren araudi berri baten beharra; gainera, proportziozko araugintza ekintza da, zeren eta lortu nahi den helburua lortzeko (hau da, 2022-2023 denboraldian Arabako Lurralde Historikoan ehizaren araudi espezifikoa arautzea) ezinbesteko gutxienera mugatzen baita.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordea entzunda, haren irizpena partzialki neure eginda, eta halaber 2022ko apirilaren 21ean bildutako Lurraldeko Ehiza Kontseiluari kontsulta eginda.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenen indarrez, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan 2022-2023 denboraldirako ehizan aritzea arautzen duen araudia, I eranskinean jasotako artikulua arabera.

Azken xedapena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 21a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN EHIZA ARAUTZEN DUTEN
BALDINTZA OROKORRAK EZARTZEN DITUEN ARAUDIA

1. artikulua. Ehizarako lursailak. Baimendutako egunak eta ordutegiak

1.1 Arabako Lurralde Historikoan debekatuta daude aprobetxamendu komuneko ehiza lurrak. Espeziearen egoera berezia dela eta, debekatutako lurretan basurdeak bakarkako jauzi ehizan eta zelata ehizan ehizatzeko baimena eman ahal izango da, administrazio batzarrek edo udalek hala eskatuta.

1.2 Arabako Lurralde Historikoko ehiza barrutietan ehizan aritzeko baimendutako egunak honako hauek izango dira, oro har: aldi baimenduaren ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak. Hala ere, aintzat hartu beharko da ehiza barruti bakoitzeko baldintza tekniko-zinegetikoen agiriak eta ehizako jarraipen planek eta ehiza aprobetxamenduko berariazko beste arau batzuek jasotzen dutena.

Espezie jakin batzuei dagokienez, ehiza barruti bakoitzerako onartutako ehizako jarraipen planetan zehazten diren egunak hartuko dira kontuan.

1.3 Oro har, 8:30etik 17:30era jardun ahal izango da ehizan, salbu eta debeku erdiko aldi, ehiza larrian, uso migratzaileak eta birigarroak tiro postu finkoetatik ehizatzen badira edo berariazko baimenik bada; horien ordutegia kasuan-kasuan finkatuko da baldintza espezifikoa.

1.4 Foru agindu honetan eguzki irteera eta sarrera edo egunsentia eta iluntzea aipatzen direnean, erreferentzia bezala hartzen da Institutu Geografiko Nazionalak Arabako lurralderako argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofiziala (<https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-dru-pal/salidapuestasol/2022/Vitoria-2022.txt>).

2. artikulua. Debeku erdiko aldia

2.1 Egun baimenduak: ostegun, larunbat eta igandeetan jardun ahal izango da ehizan, 2022ko abuztuaren 15etik irailaren 12ra arte, biak barne.

2.2 Ordutegia: Ehizarako ordutegia egunsentitik iluntzera arte izango da.

2.3 Debeku erdiko aldi, honako espezie hauek ehizatu ahal izango dira: galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), untxia (*Oryctolagus cuniculus*), belabeltza (*Corvus corone*), mika arrunta (*Pica pica*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

Debeku erdiko aldi, pagausoa (*Columba palumbus*) abuztuaren 26tik irailaren 13ra ehizatu ahal izango da.

3. artikulua. Ehiza xehea

3.1 Baimendutako aldia: oro har, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan jardun ahal izango da ehizan, 2022ko urriaren 12tik 2023ko urtarrilaren 31ra arte, biak barne.

3.2 Jarraian adierazten dira ehiza xeheko zenbait espezieetarako baimendutakoaldiak:

– Uso migratzaileak eta birigarroak postu baimenduetatik ehizatu ahal izango dira ehiza xeherako baimendutako egunetan ez ezik, 2022ko urriaren 1etik abenduaren 15era ere, biak barne, edozein egunetan.

– Arabako Errioxako postu baimenduetatik birigarroak ehizatu ahal izango dira 2022ko azaroko eta abenduko eta 2023ko urtarrilaren 31ra arteko egun guztietan.

– Untxia: Leza, Samaniego, Navaridas, Eskuernaga, Mañueta, Guardia, Bastida, Elciego eta Lapuebla de Labarca-ko udalerrietan, 2022ko urriaren 12tik 2023ko otsailaren 28ra arte.

– Baimendutako oilagor zonetan, baimendutako aldiaren asteko egun guztietan ehizatu ahal izango da.

3.3 Orduetgia: tiro postuak eta txabolak erabiltzeko eta uso migratzaileak eta birigarroak ehizatzeke orduetgia, baimendutako aldiaren, egunsentitik iluntzea baino ordu erdi lehenagora arte izango da, Arabako Errioxako tiro postu finkoetan izan ezik, horietan egunsentitik iluntzera arte izango baita.

3.4 Debeku erdiko aldiaren, honako espezie hauek ehizatu ahal izango dira:

Ugaztunak: untxia (*Oryctolagus cuniculus*), erbia (*Lepus sp*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

Hegazti sedentarioak: eper gorria (*Alectoris rufa*), faisaia (*Phasianus colchicus*), arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*), mika arrunta (*Pica pica*), belabeltza (*Corvus corone*) eta haitz usoa (*Columba livia*).

Hegazti migratzaileak: pagausoa (*Columba palumbus*), txoloma (*Columba oenas*), birigarro txikia (*Turdus iliacus*), garrastarro (*Turdus viscivorus*), birigarro arrunta (*Turdus philomelos*), durdula (*Turdus pilaris*), galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), oilagorra (*Scolopax rusticola*) eta istingor arrunt (*Gallinago gallinago*).

Hegazti urtarrak: basahatea (*Anas platyrhynchos*), ahate txistularia (*Anas penelope*), ipar ahatea (*Anas strepera*), ahate buztanluze (*Anas acuta*), antzara hankagorritza (*Anser anser*), udako zertzeta (*Anas querquedula*), zertzeta arrunta (*Anas crecca*), ahate mokoizabal (*Anas clypeata*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*) eta murgilari mottoduna (*Aythya fuligula*).

Aldi baterako debekatuta dago usapal europarra, istingorri txikia, murgilari europarra eta hegabera ehizatzea.

Aipatutako espezieen arauketa, haien indarrean dagoen babes estatusaren arabera egingo da. Foru agindu hau indarrean dagoen aldiaren hartan adierazten diren espezieetako baten babes estatusa aldatzen baldin bada, onartutako estatus berriaren arabera arautu beharko da. Egoera hori gertatzekotan, komunikabideen bitartez ezagutzera emango da.

3.5 Jarraian adierazten dira zenbait espezieetarako baimendutako gehienezko kupoak:

Eper gorria: hiru ale pertsona eta egun bakoitzeko.

Oilagorra: hiru ale pertsona eta egun bakoitzeko.

Galeperra: hamabost ale ehiztari eta egun bakoitzeko.

Erbia: ale bat ehiztari eta egun bakoitzeko.

4. artikulua. Ehiza larria

4.1 Kupoak: "ehiza espezieen harrapaketa kupoak Arabako Foru Aldundian ehiza arloan eskumenak dituen sailak zehaztutakoak izango dira; basurdeak ehizatzeke ez da kuporik izango."

4.2 Aldi baimenduak.

4.2.1. Jarraian adierazten dira zenbait espeziatarako baimendutako aldiak:

Basurdea (*Sus scrofa*).

Basurdea ehizatu ahal izango da 2022ko irailaren 1etik 2023ko martxoaren 15era arte, ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta estatuko, foru lurraldeko edo tokiko jaiegunetan, suzko armaz uxaldietan eta mendi ehizetan, eta arkuz uxaldietan, mendi ehizetan eta zelata ehizan. Arku bidezko zelata ehizan, hurrengo egunean bezperan zauritutako animaliak hiltzeko baimena ematen da.

Bakarkako jauzi ehiza: 2022ko irailaren 1etik 2023ko martxoaren 15era arte, ehiza larriko aprobetxamendua duten eta ehizaren jarraipen planean jasota duten ehiza barrutietan.

Oreina (*Cervus elaphus*): 2022ko urriaren 12tik 2023ko otsailaren 28ra arte.

Orkatza (*Capreolus capreolus*), 2022-2023 denboraldian, honako aldi hauetan ehizatu ahal izango da:

a. Arren udaberriko mendi ehiza: 2023ko apirila, maiatza eta ekaina.

b. Ar eta emeen udazkeneko mendi ehiza: 2022ko urria.

c. Emeen neguko mendi ehiza: 2023ko urtarrila eta otsaila.

d. Ar eta emeen udazkeneko uxaldiak: 2022ko urria.

e. Emeen neguko uxaldiak: 2023ko urtarrila eta otsaila.

4.3 Baimendutako egunak eta ordutegiak:

a) Uxaldian ehizatzeke baimendutako egunak ostegunak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izango dira, 8:30etik 17:30era bitarteko orduetan.

b) Orkatza zelatan ehizatzeke egun baliodunak, ehiza aprobetxamendurako planean besterik xedatu ezear, asteko egun guztiak izango dira, egunsentia baino ordu erdi lehenagotik iluntzea baino ordu erdi geroago arte. Parke naturalen barruan dauden ehiza lurretan, egunsentia baino ordu erdi lehenagotik 11:00 arte eta 18:00etatik iluntzea baino ordu erdi geroago arte, udaberriko zelataldietan, eta egunsentia baino ordu erdi lehenagotik 11:00 arte eta 17:00etatik iluntzea baino ordu erdi geroago arte, udako, udazkeneko eta neguko zelataldietan.

c) Zelatan eta itxaronez edo zain egonez ehizatzeke egun baliodunak, espeziea ehizatzeke aldi balioduneko ostiralak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izango dira, egunsentia baino ordu erdi lehenagotik iluntzea baino ordu erdi geroago arte. Parke naturalen barruan dauden ehiza lurretan, ordutegia egunsentia baino ordu erdi lehenagotik 11:00 arte eta 17:00etatik iluntzea baino ordu erdi geroago arte izango da.

5. artikulua. Debekuak

5.1 2/2011 Legearen 56.48 artikulua aplikatuz, eta kontuan izanik giza kontsumorako ez diren animalia azpiproduktuak eta animalien osasuna kontrolatzeko arauak garatzen dituen otsailaren 2ko 50/2018 Errege Dekretua, ehiza larrian, debekatuta dago uxaldietako ehiza hondakinak bertan uztea.

5.2. Debekatuta dago eskopetako hiru txakur baino gehiagorekin ehizatzea, bakarkako jauzi ehiza xehean.

5.3. Balak erabiliz eta balak edukiz ehizatzea, ehiza xehean, eta perdigo kartutxoekin ehiza larrian, basurdeen bakarkako ehiza barne, perdigoizat hartzen dira 4,5 milimetroko diametroa edo txikiagoa duten jaurtigaiaik. Edukitzeko debekua ez da aplikatuko uxaldiaz bestelako modalitateetan ehiza larria eta ehiza xehea aldi berean egin daitezkeen garaian.

6. artikulua. Prebentzio eta kontrol neurriak, nekazaritzan, abeltzaintzan, mendietan eta basa faunan egindako kalteengatik

Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 34.4 b eta 34.5 artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoan ehiza espezieak kontrolatzeko aparteko neurriak arautzen dituen apirilaren 7ko 134/2017 Legean edo hura ordezkatzeko duenean xedatutakoa aplikatuz, lursailen batean ehiza espezieek egindako kalteak agertzen badira, haiek kontrolatzeko prozedura eta baliabide egokienak baimendu ahal izango dira, eta bereziki sustatu beharko dira prebentzio neurriak eta ohiko ehiza metodoen alternatibak.

7. artikulua. Unean uneko neurriak

Espezieen iraupenerako batere onuragarriak ez diren gertaera klimatikoek, biologikoek edo bestelakoek Arabako edo eskualde bateko ehiza aberastasuna kaltetu badezakete, haiei aurrea hartzearen, urgentzia horretarako oztopo ez bada, eta Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, ehiza arloan eskumenak dituen sailak ehiza espezie horietako batzuk edo guztiak ehizatze baimendutako aldiak aldatu ahal izango ditu. Erabaki hori komunikabide nagusietan argitaratu beharko da eta, ondoren, ALHAOn, foru arau bidez eta ahal bezain azkar.

8. artikulua. Merkaturatzea

Irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatzen duenez, hauek dira Araban ehizatu eta merkaturatu daitezkeen ehiza espezie bakarrak: basahatea, oreina, galeper arrunta, untxia, orkatza, faisaia, basurdea, erbia, pagausoa, txoloma, eper gorria eta azeria.

9. artikulua. Ehiza faunaren babes orokorra

Oro har, ehiza barruti batean aldi berean bakarkako jauzi ehizan jardun dezake, gehienez ere, pertsona batek 100 hektareako.

10. artikulua. Baimendutako baliabideak

Ehiza espezieak harrapatze baimendutako baliabide bakarrak hauek dira: erriflea, eskopeta, arku eta behar bezala baimendutako ehiza hegaztiak eta hudoak. Horrez gain, arma zuriak erabil daitezke ehiza larriko ehizakiak errematzeko, eta soilik horretarako.

11. artikulua. Ehiza-zehapenak

2/2011 Legearen 31.1 artikulua azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuz, eguneratu egiten dira ehizako arau hausteengatik zehapenak. 2022-2023 ekitaldian hauek izango dira:

Arinak: 57,30-572,92 euro.

Larriak: 572,93-2.291,67 euro.

Oso larriak: 2.291,68-6.875,00 euro.